

MUNDUKO KOPA TRINKETEAN

Goiatz Manzidor munduko txapeldun

Paleta Gomako urrezko domina ekarri du Baionatik. Hurrengo urtean, 22 urtez azpiko Munduko Txapelketa jokatu du.



Goiatz Manzidor urrezko medailarekin pozik.

HEMERETZI urterekin munduko kopa irabazi du Goiatz Manzidorrek Espainiako selekzioarekin. Selekzioan lau ziren hautatuak eta berari Argentinaren aurka jokatzeko tokatu zitzaion semifinaletan Susana Lizarratarra lagun zuela. 30 eta 16 hartu zituzten menpean lan haundiegirik gabe.

FINALEAN ESTU

Finala ere Argentinaren aurka jokatu zuten taldekideek. Goiatzek ondo adierazten du "27 eta 28 galtzen joanda 30 eta 29 irabazi zuten taldekideek; ez genuen ederki pasa".

LIGA MARTXAN

Munduko kopa pasa da baina

ez du deskantsatzeko denborarik, hurrengo astean Gipuzkoako liga hasiko baita. Amaia Martinez hernaniarrak ere parte hartuko du.

Bestalde, lehengo urtean kadetetan jokatu zuten neskek gaur laueta kiroldegiko beheko atean dute zita aurtengo entrenamentuak antolatzen. □

UDALETXEAREN ERAKUSKETA

Gaurtik urriaren azkena bitartean zabalik izango da

Atzo arratsaldean izan zen inaugurazio ekitaldia.

MERTXE Etxeberria alkateak inauguratu zuen atzo *Hernaniko Udaletxea*: mende bat zutik erakusketa. Bixente Zarauetak, Ayarragaraytaren ondorengoak, udaletxe berriaren planoak egin zituen arkitekto hernaniarraren biografia kontatu zituen, eta Jesus Mari Gomez, berriz, artxibo zerbitzukoak erakusketaren xehetasunak. □



Bixente Zaraueta, atzoko inaugurazioan.

OKERRAK ZUZEN

Joanito Oiarbide *Txilibita* zenaren omenaldia bihar da, larunbatean Ereñotzun, ez igandean atzoko *Kronikan* atera genuen bezala. Goizean mendi irteera, eguerdian lore eskaintza eta gero herri bazkaria. □

DATORRE URTEKO AURREKONTUAK

Udalak herritarren artean eztabaida irekiko du

Gaur hamabietan prentsaurrekoa emango du.

Hernaniko Udalak datorren urteko aurrekontuak herritarrekin eztabaidatzeko asmoa du. Joan den asteartean Biteri kultur etxean batzarra izan zen, besteak beste puntu hau eztabaidatzeko.

PROZEDURA ETA EGUTEGIA

Gaur eguerdiko hamabietan prentsaurrekoa emango du udalak pleno aretoan. Bertan, beren proposamena martxan nola jarri azalduko dute. □

Butanoa 200 pezeta igoko da datorren hilean

Datorren apiriletik aurrera berriz igoko omen da.



Butanoaren prezioa ez nonbait zebraidean geldituko.

ESPAINIAKO gobernuaren aginduz Energia Kontseiluko petroliotik datozen gasen prezioak berrikusten ari da. Datorren urriaren hirutik aurrera %17 altxako da bonbona butanoa. Orduan oraingo 1.115 pezeta ez baizik 1.309 ordaindu beharko dugu. Azken 12 hilabetetan butanoaren prezioa Espainiako Estatuan mantendu egin da dekretuz; baina, kan-


poan gora egin du asko. Prezio igoera hau egoera parekatze aldera izango omen da.

IGOERA BERRIAK

Hemendik aurrera, sei hilabetez behin berrituko dute bonbonaren prezioa. Butano eta propanoaren kotizazioak gora doazenez, sei hilabete barru gehiago pagatu beharko dugula aurreikusten dute adituek. □

 **TXEMA**
TABERNA
Izpizua 19
HERNANI
Tel. 943 55 10 12

PUTZUETA
HARATEGIA - URDAITEGIA



Kardaberaz, 39
Tel: 943 55 27 87
HERNANI

 **MUEBLES HERNANI**

Esposizio aldaketa.
Beherapen bereziak.

HERNANI ALTZARIAK, Gartzia Goldaraz 8 HERNANI

'AURRERA' DENBORA LIBREKO ELKARTEA

'Atzeratuekin' lan egiteko monitorea behar dira

Irailetik ekainera larunbatero antolatzen dute irteeraren bat. Orain, sei begirale eta hemezortzi atzeratu daude. Dozena bat begirale inguratzea dute helburu.



Xabino Eiguren, Juani Sedano, Xabier Aizeaga eta Karlos del Amo ñauterietako konpartsan. .

AURRERA elkarteak 12 urte daramazki Hernaniko atzeratuekin lanean. Elkartea autonomoa da eta herri mailan egiten du lan, bertako jendearekin. Ostegunero elkartzen dira Biterin eta han erabakitzen dute larunbateko plana. Datorrenean, adibidez, Egia Porrontxotara joatea pentsatu dute, urteroko ohiturari jarraituz.

Gainerakoan, zinemara, mendira, Donostiara paseatzera... Asteburu osoko irteerak ere egiten dituzte: udaran Etxarri-Aranazen egon dira lau egunetarako. Bestelako gauzak ere egin izan dituzte: ñauterietan konpartsa montatu, olentzerotan atera.... Sei begirale ordea, gutxi da lana behar bezala egiteko.

"GOGOA IZAN"
Aurrera elkarte monitorea lanak egiteko jende bila dabil. "Oso lan erraza da, gogoia da behar den bakarra". Larunbatero egiten dituzte irteerak, baina, begiraleek, txandatu, bi astez behin izaten dute lana. Interesik duenak jo Biterira ostegunetan 19:30etan eta larunbatetan 16:30etan. □

Euskara ikasi nahi duten hernaniarrentzat diru laguntzak

Kanpoan ikasten ari direnek, urriaren 13a baino lehen egin beharko dute eskaera.

HERNANIKO Udalak diru laguntzak emango dizkie euskara ikasi nahi dutenei. Ikastaro arruntak, trinkoak edo barnetegiak egin, diru laguntzak izango dira eta langabetu, ikasle eta erretiratuen kasuan

haundiagoak. Hernaniko eskualtegiak eurek egiten dituzte tramiteak, baina, kanpoan ikasten ari direnek udaleko Euskara Zerbitzuan egin behar dute eskaera. Informazio gehiago: ☎ 943 555950 □

BALDINTZAK

- Hernanin errolatua egotea.
- Ikastaldian zehar klaseen %85era joatea.
- Azterketak egitea.
- Matrikula ezarritako epeen barruan ordaintzea.

DATOZEN PARTIDUAK

Ostirala ■ PELOTA Profesionalak. Gipuzkoako Opena. Mutrikun 18:00etan Esnal-Laskurain ? ■ Larunbata ■ FUTBOLA Gorengoen maila. Erreterian 17:15etan. Beti Ona-Hernani	·Emakumezkoen liga. Zubipen 19:00etan Hernani-Luberri ·Gazteen liga nazionala Zubipen 17:00etan Hernani-Erreala ·Gazteen ohorezko liga. Pasai Antxon 18:30etan Pasajes-Hernani ·Gazteen bigarren maila. Lasarten 15:30etan. Texas Lasartearra-Hernani	·Bigarren maila kadetea Zubipen 19:00etan. Hernani-Intxurre ■ Igandea ■ FUTBOLA 3.maila. Zallan 18:30etan Zalla - Hernani ■ PELOTA Profesionalak. Komunion-en Oiaga-Mendia Zabala-Alonso
---	--	--

HITZ BITAN

✓ MUSA

Etxeberriko elkarteak mus txapelketa antolatu du. Parte hartu nahi dutenek elkartearen bertan eman behar dute izena.

✓ TXILLIDAREN MUSEOA

Gaur da lehen inaugurazio eguna. Eguerdiko 11:30etan eskainiko du prentsaurrekoa Eduardo Txillida eskultore donostiarra bere museo berrian, Zabalagan.

✓ BERTSOLARITZA.

Bertso eskolan hasi nahi duten gaztetxoek gaur dute aukera. Hernaniko bertsoeskola ikasturte berriari ekitera doa. Atzo ikastolaz ikastola ibili ziren kantuan jendea animatzen. Joan den urtean berrogei ikasle inguru ibili ziren eta eskolarteko txapelketa irabaztea ere lortu zuten. Gaur bostetan Biterin elkartuko dira.

✓ ALDERDI EGUNA

Irailaren 24ean EAJko kideek Alderdi Eguna ospatuko dute Gasteizen. Hernaniko EAJ-k autobusa jarriko du Salburuara joateko. Izena emateko hilaren 21ean (atzo zortzi) arratsaldeko 6etatik aurrera 943 550212 telefonora deitu.

✓ PELOTA

Garikoitz Erroizenea ereñotzuarrak eta Argotek 18 eta 10 galdu dute Lezoko finalean. Irabazle Mendizabal eta Gurrutxaga gelditu dira Antiguako finalean bezalaxe. Bi bikote hauek elkarren aurka asko jokatu dute azken aldian, eta badirudi nahiko parekatuta ibiltzen direla.

✓ GIMNASIA ERRITMIKOA

Gaur bukatuko da kiroldegian izena emateko epea. Izena eman dutenek hilaren 21ean izango dute zalantzak argitzeko eguna.

✓ PRESOKAK

Plaza Berrin 50 lagun inguru elkartu ziren atzo zigorraren hiru laurdenak bete dituzten presoaren askatasuna eskatzeko. Joxean Pagola Beltza, Pakito Lujanbio eta Xabier Arnaiz dira zigorraren hiru laurdenak beteak dituzten herriko preso politikoak. □

AGENDA

❖ ERAKUSKETAK Hernaniko Udalaletxea: mende bat bizirik Udalaletxean bertan, 18:00-20:00.	❖ DIAPPOSITIBA EMANALDIA AEK-k antolatuta. Kixkal Tabernan 20:00etan.
Kuba orain hamar urte. Argazki erakusketa Zumardi jatetxean.	❖ ARGAZKI ERAKUSKETA AEK-ko argazkiak Kixkal tabernan
Juan Ramon Perez Oreterarraren Kuadroak. Txema tabernan.	

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Chucla
Kardaberaz,48
☎ 943 551793
- ▶ Gauzez: Chucla
Kardaberaz,48
☎ 943 551793

IRAGARKI MERKEAK

▶ Jatetxe batean, garbitasunerako emakume bat behar da. Kotxea beharrezkoa. Tel.: 943 55 64 81.

▶ Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko, goizean 2 orduz. Arratsaldetan deitu. Tel.: 943 55 25 41.